



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko maiatzaren 6ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko maiatzaren seian arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, IDIART Claudine

Saioko idazkaria: DACHAGUER Peio

Deialdiaren data: 2025eko maiatzaren 2a

Afixatze data: 2025eko maiatzaren 2a

1. ERABAKIA: %30eko AURRERAKIN BATEN EMATEA SAINT MICHEL ESKOLA **PRIBATUARI** **2025eko ESKOLARATZE FORFETETIK** *(7.5 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio, Frantziako Hezkuntza Kodeko L.442-5 artikulua arabera, Ortzaize - Arrosa Herri-arteko Pedagogia Elkartearen (HPE/RPI) lurraldean diren kontratupeko ikasgelen funtzionamendu gastuak irakaskuntza publikoko eta maila bereko ikasgelen baldintza beretan kontuan hartzen direla.

Auzapezak proposatu du Saint Michel eskolarentzako 2025eko eskolaratze forfetaren %30eko aurrerakina ematen segitzea.

Aurrerakinaren kalkulatzeko, 2025eko eskolaratze forfetaren aurreikuspena hartuko da kontuan, hots 2024koaren parekoa izan daitekeena.

Auzapezak biltzarkideei oroitarazi die zenbatekoak izan diren 2023-2024 ikasturtean Ortzaizeko eskola publikoaren funtzionamendu gastuak:

- 19 268.65 euro ama-eskolako 22 ikaslerentzat, hots 875.85 euro haur bakoitzeko, Ortzaizeko eskolan.
- 10 388.37 euro CP-CE1 mailetan diren 24 ikaslerentzat, hots 432.85 euro haur bakoitzeko, Ortzaizeko eskolan.
- 13 798.84 euro CE2tik CM2rakoà 24 ikaslerentzat, hots 574.95 euro haur bakoitzeko, Arrosako eskolan

Biltzarkideei jakinarazi die, Saint Michel eskola pribatuan 2024ko sartzean 16 ikasle Ortzazekoak zirela, eta horien artean 8 ama-eskolan, 4 CP-CE1 mailetan, eta 4 CE2 eta CM2 mailen artean. Horiek horrela, aurrerakina honela kalkula daitekeela zehaztu du:

3 311.40 euroko aurrerakina, honela kalkulatu:

	Ama-eskolak	CP-CE1	CE2-CM2	OROTARA
2023-2024ko forfeta	875.85 €	432.85 €	574.85 €	
Haur kopurua 2024/09/01ean	8	4	4	16
OROTARA	7 006.80 €	1 731.40 €	2 299.84 €	
%30eko aurrerakina	2 102.04 €	519.42 €	689.94 €	3 311.40 €

Eskola publikoko ikasle baten kostua x Ortzazeko eskola pribatuko ikasle kopurua x %30

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik,

- ERABAKI DU, aho batez, Saint Michel eskolari 3 311,40 euroko aurrerakina onartzea 2025 urtearentzat,

- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 12

ALDE: 12

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko maiatzaren 6an

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko maiatzaren 12an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.